



Goizuetako Udalbatza, Herriko Etxeko Bilkura Aretoan, **bi mila eta hemezortziko maiatzaren 4an** eguerdiko ordubatak direlarik **aparteko bilkuran** biltzen da ondoren aipatzen diren partaide hauekin:

MARIA PILAR APECECHEA ELIZALDE
JOSU GARMENDIA RECALDE

Eta Udaletxe honetako alkatea, UNAI LOIARTE ANSA

Idazkari lanetan, Miriam Arozena San Miguel, Goizuetako ordezeko idazkaria.
Alkateak eguneko aztergai zerrendako lehenengo puntuarekin hasteko agindua eman du

1.- 2017/2018 MENDI KANPAINAN EGIN BEHAR DIREN MENDI LANAK EGITEKO ESLEIPEN PROZEDURARI HASIERA EMATEA ETA KONTRATUA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA PLEGUA ONARTZEA

2017/2018 Mendi Kanpainan egin behar diren mendi lanak jasotzen dituen proiektua idatzi du mendiko ingeniari teknikoa den Enrique Montero Santa Eugeniak.

Proiektu honetan honako lanak egitea aurreikusten dira:

- Burugorriko landaketan sortu diren hutsen betetzea
- Itxitura jasotze lanak
- Mozketa ondorengo zakarren bilketa lanak
- Udako garbiketa lanak paraje desberdinetan

Lan guzti hauetatik, Itxitura jasotze lanak, mozketa ondorengo zakarren bilketa lanak eta udako garbiketa lanak (Maldamalkor parajeko udako garbiketa lanak salbu), egikaritu beharrak daude.

Proiektuaren idazketa egin duen mendiko ingeniari berak, 2018ko maiatzaren 2ko txosten bidez, arrazoitu du, Maldamalkor parajeko udako garbiketa lanak zergatik modu banatuan esleitu behar diren, hau da: Maldamalkor parajeko landaketa LIZELAN SL-k egin du Nafarroako Gobernuak finantzatua, berme epean dago, urte batez, eta berme epe honen barnean paraje honetan egin behar diren udako garbiketa lanak enpresa berak egite komeni da. Hau horrela ez balitz, errepoblazio lanaren hutsak ikuskatzeko lanak egiten dituen Nafarroako Gobernuak (2018ko azaroan), arazoak egon daitezke beste kontratista batek egiten badu udako garbiketa lana, eta landaren hutsen betetze lanak egin beharko balira, ezingo litzake jakin ze kontratistaren erantzukizuna den landaren hutsen betetzea, landaketa egin duen kontratistarena edota udako garbiketa egin duen kontratistarena.

Guzti hau kontutan izanik, Goizuetako Udalbatzak aho batez erabaki du:

1.- 2017/2018 Mendi Kanpainan egin behar diren mendi lanak jasotzen dituen proiektuaren onartzea.

2.- Aipatutako proiektuan jasotzen diren, Itxitura jasotze lanak, mozketa ondorengo zakarren bilketa lanak eta udako garbiketa lanak (Maldamalkor parajeari dagokiona salbu) esleitzeko prozedura irekiari hasiera emate eta kontratazio hau arautzen duten baldintza administratiboa onartzea.



GOIZUETAKO UDALA

Alkateak eskari edo galderarik ba ote duten galdetzen die udalbatzako kideei. Galdera edo eskaririk egiten ez denez, eguerdiko ordubata eta erdiak direnean alkateak bukatutzat eman du bilera, nik, Idazkariak ziurtatzen dut.